

Beste pauso bat etorkizunerantz

Busturialdeko eragileen gatazkak eta aldarrikapenak aztertu eta alternatiba propioak sortzeko aukerez eztabaidatu zuten joan den astean ordezkari politikoek eta sozialek

—ANE MARURI ARANSOLO

Lau urte beteko dira Gernika Gogoratuz eta Gernikatik Mundura elkarteak Busturialdeko eragileen gatazkak eta aldarrikapenak aztertzen eta alternatiba propioak eraikitzeko aukerak babesten dituen *Gatazkan dauden lurraldeak* proiektua martxan jarri zutenetik. Joan den hilabete amaieran, beste pauso bat eman zuten: Urdaibaiko Patronatuaren egoitzan azken urteetan egindako diagnostikoetan jasotako erroñkei, hausnarketei eta gatazkei buruz hausnartu zuten eskualdeko ordezkari politikoek, gizarte ordezkariak, kudeatzaileak, artistak eta mundu akademikoko irakasle eta doktoreak.

Gernika-Lumon eta Bermeon hainbat elkarrizketa, tailer eta topaketa egin ondoren, eta gazteekin, adinekoekin, emakumeekin eta kolektibo baztertuekin elkartu eta gero, eskualdeko arazoan eta erroñken zerrenda osatu zuten. Azken bi urteetan, entzuten ez diren ahotsak ere entzun dituzte *Gereizpetatik 11 izpi*



Madariaga Dorretxean ordezkari politiko eta sozialek egindako mahai ingurua. GERNIKA GOGORATUZ

proiektuagaz: migratzaileen eta adinekoen, landa eta arrantza sektoreko jendearen eta prekari-zatutako emakumeen ahots isilduak jaso dituzte, besteren artean. Horiek kontatu zizkieten eskualdeko politikariei eta ordezkariak, eta «mahai inguru oso interesgarria» izan zela ondorioztatu dute proiektuaren sustatzaileak: «Urdaibaiko etorkizu-

nari buruz ezberdinen artean berba egiteko eta hausnartzen jarraitzeko abiapuntua izan zen».

Idea «interesgarriak» plazaratu zituztela diote antolatzaileak. Izan ere, gizartearen, administrazioen eta enpresaburuen artean eztabaidak eta elkarrizketak sustatzeko prozesu parte hartzaile gehiago egin behar di-

rela esan zuten batzuek, «sektoreen artean beharrezkoa den zeharkako komunikazioa sortu ahal izateko». Beste batzuek eskualdeko herri txikiei «arreta gehiago» jartzeko eskatu zuten, baita herritarrengatik eskualdea hobetzeko proposatzen diren ekintzei kasu gehiago egiteko ere: «Garrantzitsua da proposamen horiei lekua eta protagonis-

moa ematea, erabaki garrantzitsuak hartzen ari diren guneetan gizartearen parte hartzea zabaltzeko eta erreserbak eskaintzen dituen abantailak eta tresnak aprobetxatzeko». Horretarako, udalen eta tokiko erakundeen garrantasuna «ezinbestekoa» dela adierazi zuten.

Guggenheim Urdaibai proiektuari buruz ere berba egin zuten, eta «eztabaidatzeko gune bat» eskatu zuten. Izan ere, aldeko eta kontrako jarreretatik harago, egitasmoaren egokitasunari buruz, bideragarritasun ekonomikoari eta gizarte ingurumenean izango duen inpaktuari buruz berba egin beharra dagoela uste dute. «Eztabaida informatua, irekia eta parte hartzailea izan behar da, eta horrek tokiko biztanleekiko garrantasun eta komunikazio handiagoa eskatzen du», adierazi zuten.

Kezka partekatua izan zen, baita ere, adinekoen zaintza sistemarena. Emakumeek «lan kargak handiagoa» jasaten dutela adierazi zuten, eta sistema berantolatze beharra azpimarratu.

Urtea amaitu aurretik, beste formatu irekiago batean hausnarketa eta proposamen horiekin jarraituko dute, «eskualdeko eragile guztien artean posizionamenduak hurbiltzen saiatzeko eta Busturialdean hobeto bizitzeko proposamenak jasotzeko».

Giancarlo D'Arrigo bildumagilearen Japoniako pospolo kutxen erakusketa ikusgai dago Gernika-Lumoko Kultur Etxean. Urriaren 15era bitartean bisitatu ahal izango da.

Xehetasunez betetako maisulan txikiak

—A.M.A. Gernika-Lumo

Objektuak eskuratzea, gordetzea eta biltzea da herritar askoren zaletasuna. Musika jaialdietako kartelak batzen dituzte batzuek, josteko makinak beste batzuek, eta badaude binioloak gordetzen dituztenak ere. Japoniako pospolo kutxen bilduma da, baina, urriaren 15era arte Gernika-Lumoko Kultur Etxean ikusi daitekeena.

Giancarlo D'Arrigok 1980an hasi zuen bidaia pertsonala kontatzen dute *Nire bilduma* erakusketan ikusgai dauden pospolo kutxek. Izan ere, enkantez enkante lortu ditu, baita beste bildumagile batzuei erosita ere. Denboragaz, historiaz betetako pieza bakarren erakusketa osa-



Japoniako pospolo kutxen erakusketa, kultur etxean. OIHANA CABELLO

tzea lortu du bildumagileak. «Japoniako pospolo kutxen etiketen ilustrazioak dira gaur egun garrantzitsuenak, xehetasunen aberastasunagatik eta koloreagatik», azaldu du D'Arrigok.

Erakusketan ikus daitezkeen pospolo kutxak XIX. mendearen amaierakoak eta XX. mendearen hasierakoak dira. Horietan ikusi daiteke euren diseinua «bakarra eta koloretsua» dela, baina baita pospolo kutxek esanahi historikoak dituztela ere. «Feudalismoaren amaiera eta gero sortu zen Japonia berriaren propaganda politikoa ageri da kutxetan». Garai hartako «marrazkilari eta artista handiak» daude maisulan txiki horien atzean, euren artea zabaltzeko pospolo fabrikak kontratatu zituztenak.

Martitzenean Gaztañerre Eguna ospatuko dute, Gaute giz Arteagan

—A.M.A.

Montorre Herri Ikastetxeak eta Antoliñape kultur elkarteak antolatuta, Gaztañerre Eguna berreskuratuko dute aurten, Gaute giz Arteagan. Martitzenerako hitzordua jarri dute.

10:30ean herriko plazan elkartuko dira, eta handik Atxarrera joango dira gaztainak batzera. Biltzen dituzten horiekin apostua egingo dute herriko plazan eta gaztaina janean elkartuko dira eguerdian. Zehaztu dutenez, gaztainak danbolinean erreko dituzte, «antzinako ohiturak mantenduz».

Herritarrei Gaztañerre Egunean parte hartzeko deia egin diete antolatzaileak.